

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

93/2024 Foru Agindua, apirilaren 15ekoa. Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen museo-jarduerak garatzeko laguntzen 2024ko deialdia onartzea

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak egokitzat jo du xede horretarako 2024ko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egitea, garatzen ari den jarduera multzoaren barruan eta Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen kultura-elkarte edo -erakundeek sustatutako museo-ekimenen garapena bultzatzeko.

Bereziki, diruz lagundutako museo-jardueretan genero-ikuspegia txertatzea sustatuko da, emakumeek ondareari eta kulturari egindako ekarpenak agerian uzteko eta estereotipo eta aurreiritzi sexistak gainditzen laguntzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen kultura-elkarteek edo -erakundeek sustatutako museo-jarduerak garatzeko 2024ko dirulaguntzen deialdia onartzea, bai eta justifikaziorako eskatutako ereduak ere (ebazpen honen eranskin gisa doaz).

Bigarrena. Deialdi hori honako hauek kontuan hartuta arautzen da: Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, 2019ko azaroaren 20ko 134 zenbakiko ALHAOn argitaratua, martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatua), Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 9ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitakoa eta ebazpen honen I. eranskinean ezarritakoa.

Hirugarrena. Foru Agindu honen bidez araututako laguntzak 70102. G/333700/48100723 «Museo-elkarteentzako dirulaguntzak» aurrekontu-partidaren kargura ordainduko dira, 10.000,00 euroko gehieneko zenbatekoarekin.

Laugarrena. Organo eskudunak, Museo eta Arkeologia Zerbitzuak proposatuta, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere lau hilabeteko epean. Gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute erakunde interesdunek.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok ebaizpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta hurrengoetan, edo, bestela, bi hilabeteko epean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzenean jartzea Euskal

Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 15a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

I. ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ETA TREBIÑUKO ENKLABEAN MUSEO JARDUERAK GARATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA. 2024. URTEA

1. artikulua. Deialdiaren xedea, helburua eta dirulaguntza emateko prozedura

Deialdi honen xedea da norgehiagoka bidez dirulaguntzak ematea, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen 2024ko ekitaldian kultura elkarte eta erakundeek sustatutako museo ekimenak garatzen laguntzeko helburuaz.

Bereziki, diruz lagundutako museo jarduerak genero ikuspegia txerta dezaten sustatuko da, emakumeek ondareari eta kulturari egiten dizkieten ekarpenak ikusarazteko eta estereotipo eta aurreiritzi sexistak gainditzen laguntzeko.

Deialdi honek bat egiten du Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuarekin, zeinaren bidez onetsi baitziren Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokorrak (martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori).

2. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da izan inoiz ere helburu horretara bideratu den zuzkidura baino gehiago, hau da, 10.000,00 euro baino gehiago. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuarena, 2024ko ekitaldirako luzatua, 70102. G/333700/48100723 "Museoen elkarteentzako dirulaguntzak" partidaren kontura ordainduko da.

Eskatzaile bakoitzeko esleitu beharreko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da 5.000,00 euro baino gehiago izango, sustatzen den programa edo jarduera kopurua zein den gorabehera.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

Erakunde onuradun izan ahalko dira irabazteko xederik gabeko kultura elkarte eta entitate publiko nahiz pribatuak, legez eratuak, Araban edo Trebiñuko enklabeen badute sozietatearen egoitza edo ordezkari eta espazio geografiko horretan kokatutako museo edo museo izaerako zentro publiko edo pribatu batekin lotura zehatza badute; federazioetan elkartuta ere aurkez daitezke. Federazioetan, konfederazioetan edo antzekoetan elkartutako kultura elkarte eta erakundeek ez dute nor bere aldetik edo beste erakunde bateko kide gisa aurkezterik deialdi honetan. Egoera horrek automatikoki ekarriko luke egoera horrekin identifikatutako eskaera guztiak ez onartzea.

Ez dira onuradun izango Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotzen diren egoeretan dauden erakundeak. Dekretu horrek onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez emango zituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak. Gainera, kanpoan geratzen dira honako erakunde hauek:

a) Kuadrillak, udalak, administrazio batzarrak, udal institutuak eta haietan sartuta edo haiei eratzikita dauden talde eta elkarteak.

b) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, sindikatuak edo, oro har, merkatari, teknikari, langile eta profesional elkarteak, eta horiei eratzkitako, horietan sartutako edo horietatik sortutako talde eta elkarteak.

c) Kirol federazio, klub eta taldeak.

d) Elkarteak, taldeak eta antzekoak, haien helburuen artean kultur jarduerak lehentasunik ez badute eta gauzatzen dituzten jarduerak kulturari buruzkoak ez badira.

e) Auzokide, gazte, aisialdi eta denbora libreko elkarteak, prestakuntza ikastegietako edo antzekoetako ikasleen, ikasle ohien eta gurasoen elkarteak.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programak eta gastuak

Diruz lagundu ahal izango dira Arabako eta Trebiñuko museoen edo museo zentroyen funtsak osatzen dituzten kultura ondasun higigarriak musealizatzea, ikertzea eta zabaltzea helburu duten jarduera programak. Zehazki, hauek lagunduko dira diruz: programa museografikoak gauzatzea, funtsak erakusteko eta interpretatzeko hobekuntzak egitea, funtsak katalogatzea eta funtsak babesteko eta kontserbatzeko beste jarduera batzuk (zaharberritze lanak izan ezik, horretarako beste deialdi batzuk baitaude) eta jarduera didaktikoak eta dibulgaziokoak garatzea (erakusketak, jardunaldiak, lantegiak, hitzaldiak eta web orriak edo beste garapen teknologiko batzuk) baldin eta horiek beren bildumak osatzen dituzten funtsekin edo haien ezagutzarekin eta ikerketarekin lotutako zientzia eta teknikekin zerikusi zuzena badute.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri, behar-beharrezkoak izan, merkatuko balioa gaintitu ez eta 2024ko ekitaldian egiten direnak. Diruz lagundu beharreko gastuak guztiz lotuta egongo dira lagundutako jarduerarekin.

Ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29. artikulua araberaren berariaz kanpoan geratzen direnak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Entitatea mantendu, kudeatu eta funtzionamenduan edukitzeko gastu orokorrak.

b) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

c) Bidaia, egonaldi, publizitate, ordezkaritza, protokolo eta opari gastuak eta antzekoak.

d) Musika-animazioko ekintzek, musika-emanaldi osagarriek edo akonpainamendukoek eta/edo antzekoek eragindako gastuak.

e) Aisialdiko eta/edo entretenimenduko jarduerak eragindako gastuak.

f) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbateko osoa azpikontratatu ahal izango du, betiere behar bezala justifikatzen bada eta erakunde eskatzaileko kideek zuzenean garatu ezin dituzten kontzeptuei erantzuten badie. Azpikontratazioa dagoela ulertuko da dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean hirugarrenekin hitzartzen duenean erakundeak. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da erakunde onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2006 Foru Arauak 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa baino (40.000,00 euro baino gutxiago BEZik gabe, baldin eta obra kontratuak badira, edo 15.000,00 euro baino gutxiago BEZik gabe, baldin eta horniketa edo zerbitzu kontratuak badira), erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzailei, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala dagokionean, dirulaguntzaren eskaeran; haien artean hautatzeko irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko onena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu beharko dira, beren-beregi, memoria batean.

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoa betez, eskatzaileek nahitaez aurkeztu behar dute telematikoki izapide espezi-fikoaren bidez, egoitza elektronikoaren bidez.

Aurkezpena telematikoki egiteko, erakunde eskatzaileek ziurtagiri elektronikoa izan behar dute alde zurretik. Egoitza elektronikoan sartzeko bideak zeintzuk diren eta erakunde ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo Ezagutu Egoitza-Nola sartu izeneko atalera.

2. Kultura eta Kirol Sailak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu eta erakundeak horren aurka egiten badu. Baldin eta erakunde eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, egitate horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatua, azken xedapenetatik hamabigarrenean).

6. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a. Jardueraren proiektua, banan-banan hauen gaineko azalpenak emanaz:

– Garatu beharreko jardueren deskribapena, lortu nahi diren helburuak argi adierazita.

– Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak.

b. Erakundearen ibilbidea jasotzen duen agiria, non elkartearen ibilbidean egindako jarduerak, ekimenak edo garatutako proiektuak eta abar azaltzen diren, eta noiz egin diren adierazten duten datak.

c. Jarduer(ar) en aurrekontu xehatua, eta azalduz beste erakunde edo entitate publiko edo pribatuei egindako laguntza eskaerak eta entitatearen beraren ekarpenak.

Dirulaguntza jasotzen duen entitateak hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexistak bermatu behar du egindako agiri guztietan.

7. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko hogeita egun baliouduneko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

8. artikulua. Eskaerak zuzendu edo hobetzea

1. Eskaerak osorik bete ezean edo ebazpen honetan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta agiriak aurkezteko hamar egun baliouduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

2. Nolanahi ere, aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu Kultura eta Kirol Sailak.

9. artikulua. Balioespen irizpideak

Eskaerak baremo eta balioespen irizpide hauen bidez baloratuko dira:

a) Programak zenbatean laguntzen duen Arabako kultura ondarea hedatzen eta sustatzen. Gehienez 30 puntu.

– Proposamenak alderdi honetan duen interesa eta kalitatea balioetsiko da, bai eta kulturaren eta gizartearen duen eragina eta museoarekin edo zentroarekin duen lotura maila ere (10 puntu, gehienez).

— Emakumeek sortutako edo emakumeak protagonista dituen ondarea ikusarazten duten jarduerak, memoria soziala egitea eta berreraikitzea bultzatzen dutenak, bai eta memorializazio prozesuak ere, genero ikuspegitik (10 puntu gehienez).

— Proposatutako jarduera motarengatik gehienez beste 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Erakusketak (gehienez 5 puntu erakusketa bakoitzeko).
- Jardunaldiak (gehienez 3 puntu jardunaldi bakoitzeko).
- Lantegiak (gehienez 2 puntu lantegi bakoitzeko).
- Hitzaldiak (gehienez 2 puntu hitzaldi bakoitzeko).
- Web orria edo beste garapen teknologiko batzuk (gehienez orrialde bat edo garapen bat, 10 puntu gehienez).

b) Programak zenbatean laguntzen duen museoak edo museo zentroak hobetzen. Gehienez 30 puntu.

— Proposamenak puntu honetan duen interesa eta kalitatea balioetsiko da (10 puntu, gehienez), eta kulturaren eta gizartean duen eragina (5 puntu, gehienez).

— Proposatutako jarduera motarengatik gehienez beste 15 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Proiektu museografikoak gauzatzea eta hobetzea (gehienez 15 puntu proiektu bakoitzeko).
- Funtsak katalogatzea (gehienez 5 puntu katalogazio proposamen bakoitzeko).
- Ondarea babesteko eta zaintzeko jarduerak (ondasunak zaharberritzea kenduta, gehienez ere 5 puntu proiektu bakoitzeko).

c) Programaren kostu osoaren eta eskatzaileak bere gain hartzen duen zatiaren arteko erlazioa. Gehienez 10 puntu.

— Erakundeak ez badu programaren kosturik bere gain hartzen: 0 puntu.

— Programaren kostuaren ehuneko 25eraino ordaintzen badu: 2 puntu.

— Programaren kostuaren ehuneko 25etik 50eraino ordaintzen badu: 5 puntu.

— Programaren kostuaren ehuneko 50 baino gehiago ordaintzen badu: 10 puntu.

d) Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen ibilbidea eta jarduera. Irizpide honek laguntza-
ren xede diren jardueren edizio kopurua balioetsiko du. Gehienez 10 puntu, garatutako jarduera
egin den urte bakoitzeko puntu bat.

e) Zeharka balioetsi beharreko beste irizpide batzuk. Gehienez 20 puntu.

— Euskara erabiltzea programa gauzatzean. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

• Programan euskararen erabilera sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak sartzea. 3 puntu, gehienez.

• Euskara erabiltzea programa gauzatzean. 2 puntu, gehienez.

— Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

• Programan sartzea emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak. 3 puntu, gehienez.

• Programa gauzatzeko emakumeak kontratatzea eta emakumeek profesionalki parte hartzea. 2 puntu, gehienez.

– Programan tolerantzia, gizarteratzea eta kultura aniztasuna sustatzen dituzten helburuak eta ekintzak sartzea. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

• Pertsona eta talderik kalteberenei arreta berezia ematen dieten programak, pertsona eta talde horiei jardueretan sartzeko eta parte hartzeko aukera ematen dieten ekintza espezifikoek bidez. 3 puntu, gehienez.

• Tolerantzia, gizarteratzea eta kultura aniztasuna nabarmentzen dituzten mezuak zabaltzen dituzten programak. 2 puntu, gehienez.

– Ingurumen irizpideak: ingurumen hezkuntza sustatzearekin lotutako ekintza espezifikoak. 5 puntu, gehienez.

Dirulaguntza emateko proposamenean, irizpide guztietan lortutako puntuazioan gutxienez 50 puntuko balioespena lortzen duten eskabideak bakarrik sartuko dira.

Lortutako puntuak batuketak guztirako kopuru bat izango du emaitza, eta azalduko den eskalara ekarrita, emaitza horren arabera dirulaguntza adieraziko du, dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontua oinarritzat hartuta:

PUNTU KOPURUA	DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA (%)
0 - 49	0
50 - 75	75
76 - 100	100

Balioespen handiena lortu duten erakundeei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

10. artikulua. Organo eskudunak eta ebazpena

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzua izango da prozeduraren instrukziorako organo eskuduna.

2. Eskaerak balioespen batzorde batek aztertuko ditu. Honela osatuta egongo da:

– Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

– Bokalak: Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona eta Kultura Zuzendaritzako bi teknikari.

– Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona; hitza izango du, baina botorik ez.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

3. Eskatzaileei ez zaie entzunaldiko izapiderik egingo, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko.

4. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko diputatuak izango du deialdia ebazteko eskumena, instrukzio organoak proposatuta.

5. Organo eskudunak, Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren proposamena aztertu ondoren, dagokion ebazpena emango du, gehienez ere lau hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

6. Esleipen ebazpenean zer erakunderi eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berriaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Ebazpenean, baiezkoa bada, datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, eraginpeko programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zein baldintzatan ematen den.

7. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei banan-banan, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan arautzen duenarekin.

11. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea

1. Ordainketa era honetan egingo da:

– Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 60, justifikatu beharreko aurrerakin moduan, esandako ebazpenaren datatik aurrera ordainduko da.

– Gainerakoa batera ordainduko da, dirulaguntza justifikatu ondoren. Guztizko gastuen justifikazioa aurkezteko epea 2024ko abenduaren 13an amaituko da. Oro har, diruz lagundutako programa amaitu ondoren, justifikazio dokumentazioa aurkeztu ahal izango da, eta dirulaguntza kobratzeko eskatu, justifikazioa aurkezteko gehieneko epea amaitu arte itxaron beharrik gabe. Hori da modu operatibo egokiena dirulaguntza kobratzeko epeak arintzeko.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza. 2025eko otsailaren 28rako aurkeztu beharko dira, beranduenez, dirulaguntza justifikatzeko gastuak ordaindu izana egiaztatzeko agiriak.

2. Dirulaguntzen justifikazioa Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onartu zituen azaroaren 12ko Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoari egokituko zaio (Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori).

Erakunde onuradunaren justifikazioa justifikazio-kontu sinplifikatua izango da, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikuluan arautua. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua eta aipatutako 50/2019 Foru Dekretuaren 11.3 artikulua onartzen dituena.

Justifikazio-kontu erraztuak informazio hau jasoko du:

a. Jardueren memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituena. Sexuaren arabera banakatutako informazioa eman beharko da diruz lagundutako jardueren azken onuradun edo erabiltzaileei buruz, emakumeen eta gizonen partaidetzan dauden aldeak ikusarazi ahal izateko, bai eta erakundearen titularrenak eta plantillarenak ere, eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatatu den erakundearen plantillarenak ere bai. Gutxienez, II. eranskineko atalak jaso beharko ditu.

b. Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Informazio hau III. eranskinean jasoko da.

Gainera, aurkeztu beharko dira fakturak edo jatorrizko agiri baliokideak, baldin eta, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 1.000,00 euro gaintzen badute (BEZa aparte), eta haiek ordaindu izanaren frogagiriak.

c. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Organo izapidegileak egokitzen dituen dokumentu, argibide, frogagiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie entitate onuradunei, dirulaguntza dagokion xederako ez besterako erabili izanaren arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2024ko ekitaldirako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan). Adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun edo zerbitzu ematea zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

3. Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, justifikatzeko modu gisa erabili ahal izango dira faktura elektronikoen.

Factura-e motako estandarren arabera izan behar da faktura elektronikoen formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen eskaintzen dituzten erakunde kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

4. Adierazitako epealdian aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, ordainketa kredituak baliogabetuko dira, eta justifikatu beharreko aurrerakin gisa jasotako diru kopuruak itzultzeko espedienteak abiaraziko dira.

12. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

1. Deialdi honetako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak helburu berberetarako sustatutako esku-hartzeetarako emandakoekin.

2. Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira xede bererako bestelako administrazio edo erakunde publikoek zein erakunde pribatuak (estatukoak, Europar Batasunekoak zein nazioartekoak) ematen dituzten dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin.

3. Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntzekin edo laguntzekin batera, ez du inola ere gaindituko sortutako gastuen kostua.

4. Onuradunak jakinarazi egin behar dio laguntza ematen duen organoari helburu bere-rako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duen edo eskuratzeko eskaerarik egin dion estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikori edo edozein entitate edo erakunde pribaturi.

13. artikulua. Eskaerak birformulatzea

1. Dirulaguntzaren xedea erakunde eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea denean, ebazpen proposameneko dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean ageri den zenbatekoa baino txikiagoa bada, erakunde onuradunari bere eskabidea birformulatze eskatu ahal izango zaio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzari egokitzeko.

2. Eskabideak birformulatzean, betiere, dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu behar dira, bai eta eskaerak balioesteko ezarritako irizpideak ere.

14. artikulua. Betebehar osagarriak

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek hitzematzen dute hauexek egingo dituztela:

a) Laguntza emandako xede zehatzerako erabiliko dute.

b) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduketak beteko dituzte, finantza kontrolak eta/edo Kontu-hartzailetzak egindako kontrolak beteko dituzte eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoak beteko dituzte.

c) Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailarekin lankidetzan jardutea hala eskatzen zaienean, eta erakundearen esparruari buruzko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).

d) Aplikatu beharreko araudia betetzea.

e) Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi adierazi beharko dute Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren laguntza dutela, diruz lagundutako programa edo jarduera dela eta argitaratzen dituzten programen aleetan, iragarki karteletan, argazkietan eta gainerako material grafikoan, idatzi zein entzunezkoetan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira. Gainera, hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu behar da agiri guztietan.

15. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

1. Deialdian edo Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 35. artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez direnean, jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko dira.

2. Diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez, gehiegizko finantzaketa ere itzulazteko arrazoi izango da.

16. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus.

17. artikulua. Araudi erregulatzailerak

Deialdi hau honela arautuko da:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen dituena.
- Urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzkoa.
- Urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Araua, Aurrekontuei buruzkoa.
- Ekitaldi honetarako indarrean dagoen aurrekontua betearazteko Foru Araua.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Abenduaren 27ko 57/2019 Foru Dekretua, Gobernu Kontseiluarena, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartzen dituena.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua.
- Aplikatu daitezkeen beste edozein.

Ekintzen memoria. II. eranskina
Memoria de actuación. Anexo II

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ETA TREBIÑUKO ENKLABEAN MUSEO JARDUERAK GARATZEKO X
DIRULAGUNTZAK / SUBVENCIONES PARA EL DESARROLLO DE ACTIVIDADES MUSEÍSTICAS EN EL
TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA Y ENCLAVE DE TREVIÑO**

Eskatzailea /
Solicitante

EGINDAKO JARDUEREN DESKRIBAPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS ACTIVIDADES DESARROLLADAS

HELBURU OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK BETETZEA / CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS GENERALES Y ESPECÍFICOS

HIZKUNTZA-HELBURUAK BETETZEA / CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS LINGÜÍSTICOS

BERDINTASUN-HELBURUAK BETETZEA / CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS DE IGUALDAD

**TOLERANTZIA-, INKLUSIO- ETA ANIZTASUN-HELBURUAK BETETZEA /
CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS DE TOLERANCIA, INCLUSIÓN Y DIVERSIDAD**

INGURUMEN HELBURUAK BETETZEA / CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS MEDIOAMBIENTALES

PUBLIZITATE-BETEBEHARRAK BETETZEA / CUMPLIMIENTO DE LAS OBLIGACIONES DE PUBLICIDAD

* Memoria honekin batera, diruz lagundutako programa edo jardueraren dokumentazio grafikoa, fotografikoa edo ikus-entzunezkoa erantsi behar da (programak, iragarri kartelak, liburuxkak, argazkiak, bideoak edo antzekoak).

* Junto con esta memoria, se ha de adjuntar documentación gráfica, fotográfica o audiovisual del programa o actividad subvencionada (programas, carteles anunciadores, folletos, fotografías, videos o similares).

Ekintzen memoria. II. eranskina
Memoria de actuación. Anexo II



▲ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Alava ▲
www.araba.eus

Ekintzen memoria. II. eranskina
Memoria de actuación. Anexo II



▲ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Alava ▲
www.araba.eus

Ekintzen memoria. II. eranskina
Memoria de actuación. Anexo II



▲ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Alava ▲
www.araba.eus

Ekintzen memoria. II. eranskina
Memoria de actuación. Anexo II



▲ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Alava ▲
www.araba.eus



Justifikazio kontu sinplifikatua. III eranskina
Cuenta Justificativa Simplificada. Anexo III

--

DIRU SARRERAK / INGRESOS	
Erakundea ■ Entidad	Zenbatekoa ■ Importe